

**Jean Haritschelhar, Euskal Herriko Unibertsitateetik  
Doctor honoris causa**

Abenduak 15, 1988, hartu zuen Jean Haritschelhar euskaltzainak Euskal Herriko Unibertsitateko *Doctor honoris causa*-jantzia, Gasteizen, Filologia eta Geografi-Historia Fakultatean egindako ospakizunean.

E. Barberá Erretore jauna zen mahai-buru, eta harekin jarririk zeuden Fakultateko Dekanoa, Patxi Goenaga, eta beste agintariak. Aula Magna bete-beterik zegoen, Unibertsitate bereko eta kanpoko irakasleez, eta ikasle eta bestelako jendez.

Lehendabizi, Erretore eta Dekano jauna mintzatu ziren, bilera berean Fakultatearen zabaltze ofiziala ospatzen bait zen kondaira apur bat eginez, Haritschelhar jaunaren merezimenduak aipatuz ere.

Haritschelhar jaunaren aurkezpena eta *laudatio* delakoa Endrike Knörr euskaltzain eta Fakultateko irakasleak egin zuen. Lafonen ikaslearen ikasketak eta irakasketak gogoratu ondoren, Baionako Euskal Erakustoki eta Aldizkariaren zuzendariaren azterketak eta argitarapenak aipatu zituen. Azken aldean, gobernua Frantzia euskara aintzat har zezan eskatu zuen, bai eta Bordele eta Euskal Herriko Unibertsitateen arteko lokarriak sendo zitezen.